



"GEREDIAGAREN LIDERGOA HARTZEAK BERTIGOA EMATEN DIT, BAINA EUTSIKO DIOGU MAILARI"

Nerea Mujikaren lekukoa hartuta,
Gotzon Gomez da Gerediaga Elkarteko
presidente berria; ekainaren 14an,
elkartearen 60. urteurren ekitaldia egingo dute / 17

Eraldaketa Izurtzako plazan

Gune estaliak, berdeguneak eta ur txorrotak dira proiektuko elementu batzuk / 6



**Solatsu proiektuko
kideek bizi berri bat
eman diote Elorrioko
teileria zaharrari** / 2-3



BEHERAPENAK!!

↓↓↓

ŠKODA AUTOETAN

BERRIA
edota **KM.0**

SKODA
ABADIÑO

10.000€
- raino

BEHERAPENEKIN

ŠKODA - GRUPO ORTASA
MATIENA AUZOA - MURUETA
Abadiño (Eroskiren aurrean)

Ekaitz Herrera ONDAREA

Elorriok ondarearen balioa nabarmentzeko eta turismoa sustatzeko azpiegitura bat gehiago izango du laster: Solatsu. Adar biko proiektua da, San Agustin Etxebarriako elizaren atzean lur hartuko duena. Batetik, teilaren interpretazio zentroa zabalduko dute, garai batean han martxan izandako teila-fabrika berreskuratuta. Bestetik, apartamentuak eskainiko dituzte haren ondoko baserrian. Ane Miren Arriaga Sevillano (Gernika, 1994) proiektuko ardura-duna da eta bera izango da interpretazio zentroko gidaria. Interpretazio zentroa uztaillaren erdialdean zabalduko dute.

Proiektu berria da Solatsu, baina aspaldiko lantegi bat oinarri duena. Zelan definituko zenuke proiektua?

Garai bateko teila-fabrika, teileria, berpiztu dugu, eta horregaz batera, denboran ahaztutako historia zati bat berreskuratuta. Izan ere, Elorrioren hiru teileria famatu egon ziren martxan XVIII. eta XIX. mendeetan. Baina industria iraultzagaz batera, teilen industria hori bat-batean hil zen; hau da, teilak fabrikatzeko era mekanikoak teileria artisaua ordezkatu zuen. Eta San Agustin Etxebarriako teileriarik ere horixe gertatu zitzaion: zarratu egin zen, eta denboragaz hondatzen hasi. Zorionez, baina, ondo kontserbatu da. Eta, halantxik, Unai Ugarriza arkitekto tekniko elorriarrak teileria zaharra berreskuratzeko proiektu hau hasi zuen. **Ipini dezagun teileria zaharra kronograman. Noiz altxatu zuten?**

Euskal Herrian, historikoki, harria eta egurra erabili izan ditugu eraikuntzetan. Teilak ezagutzen genituen, erromatarrek zein arabiarrek penintsula osoan zabaldu zituzten eta, baina gure burugogorkeriagaitik edo, euskaldunoi kostatu egin zitzaigun horiek erabiltzen hastea. Azkenean, herrietako suteen ondorioz, eraikinak teilaz fabrikatzeko agintzen hasi ziren instituzioak. Izan ere, teilak ez du surik hartzen, iragazgaitza da eta merkea da. Lehenengo teilagileak Kantabria aldetik etorri ziren Euskal Herrira, Bizkaiko mugatik, eta badira Durangoko eta Zornotzako teilagileen dokumentuak. San Agustin Etxebarriako teileria hau XVII. mende ingurukoa da.

Zelako lana zen teilagintza?

"Teilagintzaren historia albo batera utzita eduki dugu"

ANE MIREN ARRIAGA SEVILLANO SOLATSU PROIEKTUA

Solatsu proiektuko kideek bigarren bizi bat eman diote San Agustin Etxebarriako teileria zaharrari. Teila-fabrika berriztatu eta interpretazio zentroa ipiniko dute bertan



Ane Miren Arriaga garai bateko teileria zaharrean.

Garai hartan, lotsagarritzat eta mespretxugarritzat jotzen zen teilagintza. Oso lan gogorra zen, 17 orduko lanaldia eskatzen zuena. Gainera, aldi baterako lana izaten zen, euriak saihestu guran maiatzetik irailera bitartean egiten zena. Hala ere, teilak behar zirenez gero, nobleak kanpoko langileak kontratatzen hasi ziren. Eta halantxik, hona etorritako lehenengo teilagileak lapurtarrak izan ziren, Kanbokoak. Gerora, baina, aldaketaren bat egon zen, eta hona etortzeari utzi zioten. Orduan, langileak Asturiastik etortzen hasi ziren, Llanes herritik, batez ere. Gizon talde bat etortzen zen, ume bategaz. Azken horrentzat oraindino gogorrakoak ziren baldintzak, "gizon bihurtzeko" bidea izaten zen-eta berea. Fenomeno horrek guzti horrek eragina izan zuen; asturiar horiek euren jargoi edo *jerga* propioa asmatu zuten, xiriga, eta han-hemenka mespretxatuak eta baztertuak izan ziren. Euren komunitatea batzeko eta babesteko hizkuntza aldaera zen, eta berben % 20 euskara-

"ELORRIKO HAU ELIZAREN JABETZAKO TEILERIA BAKARRA IZAN ZEN EUSKAL HERRI OSOAN"

tik hartu zituzten. Adibidez, *gilfa* (giltza), *xagardúa* (sagar-doa) edo *esña* (esnea). Asturiasen, kaleko berbaroan, oraindino igartzen dira xirigaren arrastoak. Bizirik dagoen historia da. Euskal Herrian historia handia dago errotei edo burdinolei buruz, baina teilagintzaren industria albo batera utzita izan dugu, lan lotsagarritzat edo zikintzat jotzen zelako, beharbada.

Beraz, San Agustin Etxebarriako teileria XVII. mendean kokatu behar dugu.

Bai, baina hor ere badugu misterio bat. Izan ere, teileria bat labe bat da, izatez. Eta San Agustin Etxebarriako teileria- ren lehenengo dokumentazioa XVIII. mende hasierakoa da. Baina zer gertatzen da? Ba, teileria zaharberritzen hasi ginean, bigarren labe bat agertu zela, berezko teileria baino lehenagokoa. Horrenbestez, posible da teileria- ren jatorria lehenagokoa izatea. Gipuzkoako teilerietan, adibidez, askoz ere dokumentazio gehiago dago. Bestalde, aipatzekoa da Elorrioko teileria honek ezaugarri propio bi dituela: batetik, elizaren jabetzako teileria bakarra izan zen Euskal Herri osoan. Pentsatzekoa da, beraz, teileria hau San Agustin Etxebarriako teilak berrizteko helburuz sortu zela. Kokapen ezin egokiagoa du horretarako. Izan ere, teileriak buztin-lurra, erreka- toa eta laba isiotu ahal izateko arbolak zituen eskura. Bestetik, bigarren berezitasun bat dago. Elizak teileria errentagarria zela ikusi zuenez, lantegia zelanbait alokagai ipini zuen behar zuenarentzat. Halantxik, Elorrioko 52 familia noblek erabili zuten teileria, euren eraikinetarako. Horrenbestez, herriko teileria izatera igaro zen gerora.

Horrek esan gura du Elorrioko eraikin askotan hemen egindako teilak egon daitezkeela.

Jakina. Baserri zahar askotan gertatu daiteke hori.

Badakizue teileria hau noiz arte egon zen martxan?

Ez, ez dago data finkorik. Teilerietako aktibitatea XX. mendean amaitu zen, oro har. Espainiako gerra zibilak eragin da, teileria artisauak European baino denbora gehiagoz iraun zuten martxan, teknologia mekanikoa ailegatu arte.



Teileria zaharra Etxebarriako San Agustin elizaren atzealdean dago. SOLATSU

Eta hamarkada batzuk geroago, zuek etorri zarete teileria, Solatsuko kideak. Apurka-apurka etorri den zeozer da. Lursailok Unai Ugarrizaren aitak erosi zituen, beste familia batekin batera, 80ko hamarkadan, eta Unaik, ondare babesteko asmoz, teileria berreskuratzea eta haren ondoko baserria goitik behera eraberritzea erabaki zuen. Askok irakurri du, kontsulta eta bisita mordoak egin du han-hemen-

ka, eta 2019an inbertsioa egitea erabaki zuen. Apurka etorri dira gauzak. **Oinarri biko proiektua da, interpretazio zentroa eta apartamentuak dituen.** Proiektuko protagonista teileria da eta bera ezagutaraztea da asmoa. Beraz, teilararen interpretazio zentroan egunpasa polit bat egin daitekeela erakutsi gura dugu. Bisita gidatuak eskaini, teila fabrikatzeko prozesua erakutsi, erakustaldi bat

egin eta ginkanak antolatuko ditugu. Azken finean, umeei jolasteko, ikasteko eta inguruaz gozatzeko lekua izatea gura dugu. Hori da proiektuaren arima. Bestalde, ondoko baserria **"BISITA GIDATUAK, TEILA FABRIKATZEKO PROZESUA, GINKANA ETA APARTAMENTUAK ESKAINIKO DITUGU"**



Teileria labea berreskuratu dute.

berritu denez, horri ere etekina atera gura diogu. Azpialdean ekitaldiak egin ahal izateko eremua egongo da, eta goialdeko geletan bost apartamentu. Beraz, bisitariak bietarako aukera izango dute bertan: teileria bisitatzeko eta ostatu hartzeko. **Noiz zabalduko duzue?** Uztailko bigarren astean zabaldu gura dugu, sanfermine-tako astean. **Egin gonbita irakurleei. Zergaitik etorri Elorrioko teileria ezagutzera?**

Ezkutuan egondako historia bat ezagutzeko eta harro egoteko moduko ondarea dugula ikusteko aukera bikaina delako. Izan ere, pentsa Elorrioren zenbat ondare interesgarri dagoen! Honako hau ere oso interesgarria izango da umeentzat, eta geuretzat ere bai, makinari bako mundua zelakoa zen ikusteko, adibidez. Azken finean, ondo pasatu bitartean, bisitariak gure historia ezagutzeko aukera izango du.



Deladarr Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros

XX. edizioa | deiadar mendien eguna

Oiz 2025

Ekainak 8 Domeka

09:00 GARAI (Udaletxean)

12:00 Batzar Nagusirako deia tontorretik

Antolatzailea |  BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Laguntzaileak |      

Euskaraldia amaitu arren, ohiturak aldatzen jarraitzera deitu dute Durangon

Durangoko batzordearen esanetan, aurtengo Euskaraldiak "balio handiko aurrerapen txikiak" egitea ahalbidetu du. 2.200 herritarrek eta 152 entitatek parte hartu dute, eta batzordean aktibatutako kide kopurua "handia" izan dela nabarmendu dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Euskaraldiak egitasmoaren balantzea egin du. Ondorio kualitatiboei dagokienez, aurtengo edizioak "inoizko mugimendurik handiena" sortu duela azpimarratu dute. Izan ere, egitasmoari eskerrak "aurkezpenak, harremanak eta foroak" sortu dira, eta horiek guztiek herritar kopuru handia aktibatzea ekarri dute. Berba gutxitan, euskaltzaleen mugimendu indartsua sortu da. Era berean, Euskaraldiari eskerrak "egitarau oparoa" antolatu dela azpimarratu dute Durangoko batzordeko kideek: "Aurkezpenak, solasaldiak, musika eskaintza, jolasak, mintzodromoak... Eskaintza askotarikoa izan da, eta horrek profil ugariatuko ehunka herritarrek Euskaraldiko ekintzetan parte hartzea ahalbidetu du". Ondorio kualitatiboen azken ezagugarria euskarak "presentzia urria" duen eremuetan egindako aurre-erapausoak izan dira. "Askok esan



Durangoko Euskaraldiaren aurkezpena.

digute Euskaraldia dela euren entitateetan euskararen murgiltzeko duten tresna bakarretarikoa. Aurrerapen txikiak dira askotan, baina balio handikoak", adierazi dute egitasmoko talde eragileko kideek.

Datu kuantifikagarriei dagokienez, "Euskal Herrian gertatu den moduan", Durangon ere izen emate kopurua jaitsi egin dela jakinarazi dute: "% 9,91ko jaitsiera egon da izen emateetan, azken edizioa-gaz (2022koa) alderatuta". Hala ere, jaitsiera hori apalagoa izan da Euskal Herriko batez bestekoa-gaz alderatuta, inskripzioak % 14,5 jaitsi ziren eta, oro har, zazpi herrialdeetan. Era berean, ariketa erraldoian izena eman ez arren batzuk txapa aldean ipinita ibili direla ere esan du Durangoko Euskaraldiak. "Aurreko edizioetan izena eman zutelako ez dute eman aurtengo edo txapa izena eman aurretik eskuratu zutelako", argitu dute. Euskaraldia amaitu den arren, hizkuntza ohiturak aldatzeko lanean jarraitzera deitu du Durangoko batzordeak. Hori, "neurri batean", ahalegin indibiduala dela esan dute, baina zeregin hori era kolektiboan egitea "errazagoa" dela ere igarri dute.



Pedrosaren senideak Durangoko hilerria sartzen, PPko ordezkariak atzetik dituztela.

Jesus Mari Pedrosa gogoratu dute, ETak hura hil eta 25 urtera

Zinegotzia izandakoaren senideek eta PPko ordezkariak zinegotzia politikoko batek lore eskaintza egin zuten martitzenean

Ekaitz Herrera DURANGO

Eguaztenean 25 urte bete ziren ETak Jesus Mari Pedrosa zinegotzi durangarra hil zuenetik. Hori dela eta, PPko ordezkariak politikoko batek eta Pedrosaren senideek eta gertukoek lore eskaintza egin zioten martitzenean, Durangoko hilerrian. Senideen artean egon zen, besteak beste, Carmen Hernandez, Pedrosaren alarguna. Omenaldi ekitaldia amaituta, PPko arduradunek adierazpenak egin zituzten. Carlos Garcia zinegotzi durangarrak iragarri zuenez, Durangoko Udalak memoria-plakak ipiniko ditu

udalerrian, "ETAren terrorismoaren 13 biktima durangarren omenez". Hori guzti hori udal gobernuagaz batera "adostuta" duela jakinarazi du Garciak, neurri hori "2025eko udal aurrekontuak onartzeko akordioaren zati da eta". Bestalde, Javier de Andres Euskadiko PPren presidentea adierazi duenez, Pedrosarena moduko hilketak "egunero gogoratu behar dira, berriro ere halakorik gertatu ez dadin". "Bere duintasuna eta zintotasuna gogoratu behar ditugu, eta elkarbizitzaren alde egin zuten lan guztia, hain zuzen ere", esan zuen.

Euskal kultura ospatzeko hitzordu ugari Durangon

Asteburuko ekitaldietariko batzuk Sugarriren kalejira, mitologia jolasak eta euskal dantzen erakustaldia dira



Sugarri fanfarreak Alde Zaharreko giroa berotuko du gaur. SUGARRI

E.H. DURANGO

Durangarrak euskal jaietan murgilduta daude eguaztenetik, eta datozen aste bietan euskal kulturaz eta tradizioez gozatzeko hitzordu ugari izango dute. Gaur, barikua, adibidez, euskal mitologian inspiratutako jolasak egingo dituzte San Fauston (17:30), eta Sugarri fanfarreak pil-pilean ipiniko du Alde Zaharreko giroa (19:30). Zapatuan, euskal dantzak, txistu kontzertua eta zesta-punta txapelketa izango dira. Bestalde, domekan Peter Memoriala pilota txapelketa finalak jokatu dute Ezkurdin. Izan musika, dantza edo parranda giroko ekitaldiren bat, Durangoko Udalak eta herriko elkarteek hitzordu ugari prestatu dute. Ekitaldi guztien xehetasunak anboto.org atarian ikusi daitezke.

Heitxi, Gozategi eta Janus Lester Plateruenean izango dira

Durangoko Udalak kontzertu sorta antolatu du, Plateruena berriro aurreko atariko legez

A.M. DURANGO

Durangoko Udalak kontzertu sorta programatu du Plateruenean, azpiegitura eraberritzeko lanak hasi aurretik. "Musika sortzeko eta profesionalizatzeko erreferentziazko gune bilakatu gura dugu Durango. Proiektu estrategikoa da hau, espazio eraberritu bat baino gehiago", nabarmendu du Mireia Elkoroiribe alkateak asteon egindako agerraldian. Paule Sanchez zinegotziak, hala ere, programazioa askotarikoa eta adin guztietako publikoarentzat pentsatu dutela azpimarratu

du: "Plateruenearen birgaitze integralaren atariko legez prestatu dugu egitarau hau", azaldu du zinegotziak. Musika talde hauek izango dira oholtzan: Heitxi, Aimarz eta Malakias (ekainak 7), Gari (uztailak 5), Bizkaiko Erromeria Eguna (urriak 17), Gozategi (urriak 31), Janus Lester (azaroak 7) eta Xabier Zeberio (abenduak 13). Udaleko ordezkariaren esanetan, 2025eko Durangoko Azoka amaitu eta gero hasiko dira azpiegitura berriak. Eremu berriak ez da erabilgarri egongo 2026ko bigarren seihilekora arte.

Karmele Elexpe, ETB1eko 'Dagoenean bon-bon' saioan

Euskal Telebista gozogintzari buruzko saio berria prestatzen dabil eta iurretarrak bertan parte hartuko du

Ekaitz Herrera DURANGO

Euskal Telebista *Dagoenean bon-bon* saio berria prestatzen dabil eta ataletariko batean Gozatu Karmele Elexpe gozogileak parte hartuko du. Telebista saioko lantaldea Durangon egon zen maiatz hasieran, grabazio lanak egiten. Andra Mari kalean ipini zuten filmaketako set-a. Mahaia- ren bueltan, aurpegi ezagun bi: Armintz Gorrotxategi aurkezlea batetik, abizen bereko gozogileen familiako belaunaldi gaztea, eta Karmele Elexpe, bestetik. Graba- ziokoa "oso esperientzia polita"

izan zela esan du Elexpek. "Armintz ezagutzea ederra izan zen eta filmazio kontuak ederto batean joan ziren. Gure gozotegiko *Mani&Coo* pastari buruz berba egin genuen, baita gure etxeko beste hainbat sorkuntzari buruz ere, hala nola Durangoko txapelei buruz", gaineratu du Elexpek.

Dagoenean bon-bon saioaren atzean Digytal ekoiztetxea dago. Enpresa hori dabil ETBrentzako saio berria grabatzen, eta Andoni Etxeandia du produktore exekutibo. Berak iragarri duenez, "ETB irailean hasiko da saioa



Karmele Elexpe gozogilea eta Armintz Gorrotxategi aurkezlea, saioa filmatzen.

emititzen, eta 13 atal izango ditu". Atalik atal Euskal Herria zehar- katuko dute, bazter bakoitzeko gozogintza zein postreak ezagu- tarazteko. Halaber, gozo horien atzeko istorioak eta Euskal Herriko udalerriak zein ibarrak erakutsiko dituzte Durangoko

Bideografik ekoiztetxea bidela- gun dutela. Gastronomía saioak ez zaizkio arrotz egiten Digytal ekoiztetxeari. Izan ere, ETBleko *Joseba Argiñano Sukalerrian* eta ETB2ko *A Bocados* saioak, adibidez, ekoiztetxe horrek egi- ten ditu.

Durango UNICEFen Haurren Hiri Lagun sarera batuko da

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak Unicef era- kundearen Haurren Hiri Lagun sarera batzeko izapideak hasi ditu. Aurreratu duenez, "laster" sinatuko dute horretarako hi- tzarmena. Eta ez hori bakarrik. Udaleko talde politikoez herri- ko Haur eta Gazteriaren Diag- nostikoa egitea erabaki dute, aho batez. Horretarako, diru atal bat prestatuko dute, kredi- tu aldaketa bat eginda. Diagnos- tika ikasturte berriagaz hasiko dira egiten. Halaber, udalak gogoratu du Jessica Ruiz Haur eta Gazteriako zinegotziak *Haur- ren hiria* izeneko nazioarteko topaketan parte hartu zuela maiatzaren 19an eta 20an, Bilbon.

Etxebizitza errentan hartzeko laguntzak Zaldibarko gazteentzat

Zaldibarko Udalak ordenantza berri bat egin du 18tik 35 urtera arteko gazteei alokairurako laguntzak emateko

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak ordenantza berri bat onartu du, herriko gaz- teei etxebizitza alokatzen lagun- tzeke asmoz. Araudi berriak aho batez egin du aurrera, udalbatza- ko kide guztien oniritziagaz. Uda- lak 9.000 euroko diru atala pre- statu du ekitaldi honetarako. Era berean, arauan diru laguntzak jaso ahal izateko irizpideak eta baldintzak zehaztu ditu udalak. Batetik, eskaera egiten duten herritarrek Zaldibarren egon beharko dute erroldatuta, eta alokatutako etxebizitzak udale-

rriko mugen barrukoa izan behar- ko du. Bestetik, etxebizitza uni- tateko diru sarrera gordinen gehienezko kopurua 29.263,87 eurokoa izango da eskatzaile ba- karra dagoen kasuetan, eta 35.832,78 eurokoa etxebizitza-uni- tateko eskatzaileak bi edo gehia- go badira. Beste irizpide bat etxebizitzaren alokairuaren kos- tua da. Laguntza jaso ahal izate- ko, errentak ezingo du 700 euro- ko langa gaintitu. Azkenik, uda- lak zehaztu du diru laguntzaren zenbatekoa 100 eurokoa izango dela gehienez, eta iraupena 12

hilabetekoa izango dela. Ordez- kari politikoez azken osoko bil- kuran onartu zuten ordenantza berria, baina diru laguntzak udazkenean eskatu ahal izango dira udalean, bien bitartean arau- ri alegazioak aurkezteko epea egongo da-eta indarrean. Edozelan ere, udalak aurreratu du arauak atzeraeraginezko izaera izango duela, hau da, 2025eko urtarrile- tik aurrerako alokairuak lagun- duko dituela. "Etxebizitza oina- rrizko eskubidea da, eta, gazteek emantzipatzeko eragozpenak dituztela ikusita, erakunde pu- blikoek behar-beharrezkoa dute gaiari heltzea. Hori dela eta, Zal- dibarko Udalak bere esku dauden neurriak hartuko ditu herriko gazteriari emantzipatzen lagun- tzeke, ordenantza honegaz egin- dako moduan", gogoratu du Ene- ritz Azpitarte alkateak.

Kepa Aginakoren kartelak iragarriko ditu Zaldibarko jaiak

Lehiaketako bigarren saria Anton Iglesiasek irabazi du, eta umeena Ane Garitaonandia zaldibartarrak

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko jai batzordeak jaie- tako kartel lehiaketako irabaz- leak aukeratu ditu. Sari nagusia Kepa Aginakok irabazi du (250 euro), eta, horrenbestez, berea izango da udalerriko udako jaiak iragarriko dituen kartela. Biga- rren saria Anton Iglesiasek ira- bazi du (150 euro), eta umeen saria Ane Garitaonandiarentzat izan da. Azken horrek 100 eu- roko sari berezia jasoko du, udalerriko ostalaritza eta mer- kataritza establezimenduetan erabiltzeko.



Kartel irabazlea. ZALDIBARKO UDALA

San Antonio

Urkiola · 2025

Ekainak 13

San Antonio eguna

Meza orduak | 10:00 | 11:00 | 12:00 | 13:00

10:00-15:00 Azoka:
Ganadua eta baserriko produktuak

11:00-14:00 Trikitilariak

Bertsolariak:
Anjel Mari Peñagarikano eta Sustrai Colina

Ekainak 15

Errepetiziño domeka

Meza orduak | 10:00 | 11:00 | 12:00 | 13:00

10:00-15:00 Azoka:
Baserriko produktuak

12:45 Herri Kirolak

Aizkolariak: Mairen Barrenetxea, Nerea Arruti, Hodei Ezpeleta eta Bihurri.

Harri jasotzailea: Sara Asenjo

Ingudea eta txingak: Ainhoa Larrinca

Iparaldeko jokoak: Karlos Aretxabaleta

16:30 Erromeria
Aiko taldea



Plazako gune estalia zelan geratuko den erakusten duen infografia. IZURTZAKO UDALA

Izurtzako plaza berrizteko proiektua onartu dute

Izurtzako plaza eraberritzeko asmoa aurrera doa. Proiektua onartu dute eta obren esleipena martxan da. Lanak urri inguruan hasia itxaroten dute. Plazak hainbat osagai izango du: gune zabal bat, umeentzako ur txorrotak, estalki nagusi bat eserlekuekin, eta umeen jolasgunea tabernaren ondora tokialdatuko dutena

J.Derteano IZURTZA

Izurtzako plaza gaur egungo beharrianetara egokitzeko egitasmoan aurrerapauso garrantzitsuak egin dira azkenaldian. Maiatzeko udalbatzarrean aho batez onartu zuten proiektua; eta lizitaziorako baldintza-orria ere onartu zuten.

Lana esleitzeko lehiaketa martxan da dagoeneko. Obren kostua 608.302 eurokoa da.

Proiektuak URA agentziaren onspena du eta errepideen arlokoaren zain daude. Horiek horrela, esleipena abuztu-irailean egi-tea gura dute eta lanak herriko

jaien ondoren hasia da asmoa, urri inguruan. Egikaritze-epea zortzi hilabetekoa da.

Plazako osagaiak

Udalak herri batzar bat baino gehiago egin du behin betiko proiektua onartu aurretik, he-

rritarren iritzia jasotzeko. Eskaera nagusiak honakoak izan dira: plazak izaera polifazetiko izatea, gaur egun duen eremu zabalarari eutsita. Proiektuak ikuspegi biak jasotzen ditu eta plazak hainbat gune izango du. Batetik, aipatutako eremu zabala, askotariko ekintzak gauzatzea ahalbidetuko duena: jaietako dantza saioa, kale antzerkiak... Eremu zabal horren erdian umeentzako ur txorrotak egongo dira. Ur txorrotak zoruaren maila berean egongo dira. Beraz, gune zabal hori laua izango da.

Plazako beste elementu esanguratsu bat estalitako gune berria da. Plazako alde batean egongo da, jubilatuen lokala dagoen aldean, hain zuzen ere. Gune horrek jesarlekuak izango ditu, eta berdeguneak inguruan.

Umeen jolasgunea lekuz aldatuko dute eta tabernako terrazaren inguruan kokatuko dute. Txin-txaun berriak ipiniko dituzte bertan eta estalki bat izango du. Estalki biek frontoiaren antzeko kolorea eta diseinua izango dituzte, gune osoari koherentzia eta osotasuna emateko.

Ibilgailuen plazarako sarbidea lekuz aldatuko dute. Gaur egun, taberna ondoan dago sarrera, eta lanak amaitzean plazaren erdian egongo da. Horrez gainera, osasun zentroaren ondoan moldatu egingo dute oinezkoentzako sarbidea; eskailera gutxiago izango du, eta arrapala bat.

Angurretan Urmugaren kontzertua, uztailaren 15ean

Et Incarnatus orkestragaz batera beste hainbat musikari arituko dira Mañariko Angurretan

J.D. MAÑARIA

Urmuga, Euskal Herriko mendi, ibar eta herriak musikaz betetzen dituen egitasmoa, bueltan da. Urtero legez, Et Incarnatus orkestrako kideek hainbat emanaldi egingo dute euskal musikagileen kantak eta abeslari ezagunak lagun. Guztira, 25 emanaldi egingo dituzte zeharkaldiko egunetan. Horietariko bat Durangaldean izango da, Mañariko Angurretako harrobian, uztailaren 15ean. Et Incarnatus orkestragaz batera, bertan izango dira Pirata, Hatxe, Leturia eta Irati Arcelus, Eñaut Eloorrieta eta Xak taldea.



Mañariko Angurreta harrobia.

Hiri Antolamendurako Planaren gaineko azalpenak eman dituzte Atxondon

Udalak HAPOaren gaineko batzar zabala egin zuen martitzenean. Udalbatzar aretoan 40 lagunetik gora batu ziren planaren gaineko azalpenak bertatik bertara entzuteko

J.D. ATXONDO

Udalbatzar aretoa bete egin zen martitzenean, udalak HAPOari buruz deitutako batzar zabalean. Teknikariak eta udal ardura-dunek planari buruzko azalpenak eman eta herritarren dudak argitu zituzten. Planak udalbatzarren hasierako onarpena du. Ekaina amaitu arte alegazioak aurkeztu daitezke. Txosten osoa udaleko webgunean dago ikusgai.



Herritarrek teknikariaren azalpenak entzuten, martitzeneko batzarrean.

Jare Garitaonandia atxondarra irabazle booktrailer lehiaketan

Garitaonandia Harkaitz Canoren liburu bati egindako booktrailarengaitik saritu dute Galtzagorriren lehiaketan

J.D. ATXONDO

Galtzagorri elkartearen booktrailer lehiaketako Bizkaiko sari banaketa egin zuten martitzenean, eta epaimahaiaren saria Jare Garitaonandia Lekunberri atxondarrak irabazi du. Harkaitz Cano idazlearen *Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilta* oinez liburuari egindako booktrailarengaitik saritu dute atxondar gaztea. Lehiaketa Atxondon aurkeztu zutenean, Mireia Delgado izan zen dinamizatzailea, eta argazkian biak elkarregaz ageri dira, sari banaketan.



Delgado eta Garitaonandia.

EKAINAK 14 – 20:00 ABADIÑOKO GEREDIAGA FORU-ZELAIAN

EKAINAK 14 – 20:00 ABADIÑOKO GEREDIAGA FORU-ZELAIAN

60. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA

izan eta
eragin
IKUSKIZUNA

Itsua. Durangaldeko
ezpatadantzariak eta txistulariak.
Malakias. Karrika antzerki taldea.
Iruri Altzerreka. Unai Iturriaga.
Onintza Azkarate, Eider Gallastegi
eta Joannah Keen.



izan eta
eragin



EKITALDI IREKIA
ZATOZ GUREKIN
OSPATZERA



Autobusa Gerediaga ermita inguruan autoa aparkatzeko lekua ez dagoenez, 18:45etik 19:50era doako autobusa ibiliko da joan-etorrian Traña-Matienako Zubibitarte kaleko geralekutik. Bueltakoa 21:15etan hasita izango da. Ekitaldiaren aurreko itxaronaldia musikaz girotuko dugu.



Euria egiten badu Abadiñoko probalekuan izango da ikuskizuna eta ez da autobus zerbitzurik egongo.



Aritz Maldonado ZORNOTZA

Azken urteetan, Gure Zirkua zirkuklasikoaren magia zabaldu du herririk herri. Zortzigarren denboraldia Getxon hasi dute, eta Iker Galartzak zuzentzen duen zirkua Zornotzara heldu da oraintsu. Ekainaren 14ra bitartean, Nafarroa aparkalekuan egongo den karpan egingo dituzte emanaldiak.

Getxotik heldu zarete Zornotzara. Zelako harrera izan duzue?

Oso ona, egia esateko. Getxo pendiente genuen duela bi edo hiru urtetik. Hemen inguruan Diman egon ginen, Durangon eta Elorrioren ere bai, eta orain Zornotza tokatzen zen jada. Zintzilik ditugunei heltzeko unea ere bada orain, urte hauek igaro ondoren. Gero Eibarrera goaz, eta, beraz, bidean geratzen zaigu. Zornotza nahiko erdigunean dago, inguruan ditu Dima, Durango eta Gernika, adibidez. Hasieran hiru asterako etorri behar ginen, baina zirkua interes handia piztu du eta egonaldia luzatu dugu. Bikoteak, jende gaztea, familiak... deneriko jendea etorri da. Oso ondo doa.

Urteetako lanaren emaitza izango da.

Emanaldi guztiak arrakastatsuak izan dira, eta hori, esan bezala, aurretik egindako lanaren emaitza da. Penatan egon gara, pixka bat arriskatua zelako, behar bada, emanaldi bat 21:30ean jartzea. Hartara, jende heldua dator bakarrik, eta gehiago disfruta de-

"Urtero gauza berriak sartzen ditugu emanaldian"

IKER GALARTZA GURE ZIRKUA

Gure Zirkua zirkukonpainia entzutetsua Zornotzara heldu da bere zortzigarren denboraldian; ekainaren 14ra bitartean beste sei emanaldi egingo ditu; beste behin ere euskarazko zirkua jendetza batu du Durangaldean

zakete, espektakulua bere horretan goza dezakete, ikusi eta barre egin, umeen arduraz egon beharrik gabe. Baina mundu guztiak daki zirkura etorri daitekeela, gazteek, aitona-amonek...

Hainbeste denboraldiren ondoren, gogotsu jarraitzen duzue?

Erraza da aukera asko dagoela, baina zaila aldi berean, denekin ezin delako ondo geratu. Logika batekin antolatuta behar da bira, zentzuz mugitzeko. Iaz, Lekeition gaixotu egin nintzen, eta ez nuen gozatu; beraz, arantza hori geratu zitzaidan. Lan egin behar da, bai, baina disfrutatu ere bai, noski. Eta ez da erraza. Zortzi hilabete gabiltza atzera eta aurrera, denak emanda, eguraldi ona zein txarra egin, euria, haizea, lokatza... Eta etxeko erosotasunik gabe, baina pozik gaude, gogotsu eta hasierako ilusioarekin.

Ez da erraza izango etengabe berresmatzea.

Pentsa, duela bi urte Elorriora



Iker Galartza, zirkuko karpa atzean duela.

etorri zena Zornotzara badator, ez du orduko ezer ikusiko; urtero saiatzen gara gauza berriak sartzen. Dekoratuak bi urtez mantentzen ditugu gutxi gorabehera, lan handia eskatzen dutelako; adibidez, iazko pailazoen sketxetako bat mantentzen dugu, iaz gaixotu eta gero ez nuelako

behar den beste disfrutatu. Beste guztia berria da.

Harremana sendotuko zenuten hainbeste urtean.

Onerako eta txarrerako, beti esaten dut. Baina elkar ezagutzen dugu, eta ikasi egiten dugu. Hemen hasi ginenetik, taldekideek umeak izan dituzte, elkarrekin

ospatzen dugu, gureak balira bezala. Topiko bat da, baina elkarbizitzarekin familia bat osatu dugu. Elkarbizitza da, elkarrekin bizi garelako.

Zirkua egiteko beste modu bat erakutsi duzue, euskaraz.

Euskaraz, zirkua egiteko beste modu bat, animaliarik gabe. Hasi ginenean, oraindik bazeuden animaliak zituzten zirkua, jada kentzen hasi arren. Baina guk argi genuen hori. Eta orain, betiko zirkua, guri umetan gustatzen zitzaigun zirkua itxura du, horixe delako guri gustatzen zitzaiguna; umetako hori nahi genuenez, ezin genuen beste gauza desberdin bat egin. Azkenean, tendentziak, garaiak, dantzak, antzerkiak, norberaren esperientziak koketeleran sartu eta hemen erakusten dugu. Gu ez gatoz zirkutik, baina bai kaltetik, eta antzerkia, zinea, dantza eta telebista egitetik. Eta, alde horretatik, bakoitzaren onena dago zirkua honetan.

Jendetza, German Aldekoa oroitzeko omenaldian

Zapatuan German Aldekoa Berrizko txistulari ofizial izandakoa omendu zuten Berrizen, aldekoatarren monolitoaren aurrean; iaz hil zen Aldekoa, 71 urte gazi

A. M. BERRIZ

Maiatzaren 31n German Aldekoa Berrizko txistulari ofizial izandakoa omendu zuten. Omenaldian Berrizko San Lorentzo eta Iremiñe dantza taldeek, txistulariek, eta udal ordezkariek parte hartu zuten, besteak beste, senideekin batera. Alejandro Aldekoa aitagaz batera ikasi zuten German eta Jon semeek txistua jotzen, eta aita hil zenetik German izan zen txistulari ofiziala Berrizen.



Zapatuan izan zen ekitaldia. JOXE AMANTEGI

Elorrioko aurrekontu parte hartzaileak martxan jartzear

Udalak 2026ko aurrekontu parte hartzaileen prozesua ipiniko du martxan astelehenetik aurrera

A. M. ELORRIO

Ekainaren 9tik aurrera, Elorrioko aurrekontu parte hartzaileen lehenengo fasea ipiniko dute martxan. Udalaren esanetan, herritarrek udal aurrekontuaren zati bat zertan inbertitu proposatzeko eta ebazteko baliagarria da prozesua. Hain zuzen ere, udalak 50.000 euro erabiliko ditu proiektu hori gauzatzeko. Elorriarrek proposamenak aurrez aurre (prestatutako eskuorria udalaren postontzietan edo Iturri kultur etxean utzita) edo Internet bidez (www.elorrio.eus)

en edo QR kodearen bidez) egin ditzaketela azaldu du udalak. Ekainaren 22an amaituko da proposamenak egiteko epea. "Herritarren ideiak errealitate bihurtzeko unea da: hobekuntzak auzoetan, zerbitzu berriak, espazio publikoak...", gehitu du udalak ohar baten bitartez. Iaz, Aldatsekua frontoia eta inguruak egokitzeko proiektua aukeratu zuten herritarrek. Aurreko urteetan, Ganondo parkean natura, jolas eta kirol elementuak ipintzea eta kiroldegian roko-dromoa eraikitzea erabaki zuten.

GREMIOEN GIDA

Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARROTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ
Tel/Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

Elektrizitatea



ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com


Iturgintza



**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

EKAINEKO ZOZKETAK



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Mendexa Abentura Parkerako bost sarrera bikoitz.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Astelehenetik aurrera aparkaleku sistema berria Traña-Matienan

Proba pilotua ekainaren 9an hasiko da eta 2026ko urtarrilaren 1era arte egongo da indarrean



Trañaetxoste kalea.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO
Traña-Matienan aparkatzeko dauden zailtasunak konpontzeko, zenbait gune sortu dute, erabilpen arau desberdinekoak. Gune gorria egoiliarrentzat baino ez da izango. Bertan, ibilgailua Abadiñon erroldatuta duten pertsonak baino ezingo dute aparkatu. Gune urdinean (TAO gunea), ordutegi baten barruan gehienez ordubetez aparkatu ahal izango dute ibilgailua guztiek, autoen errotazioa eraginkorra eta ordenatua izateko eran. Gune berdean (TAO gunea), ordutegi baten barruan gehienez ordu bian aparkatu ahal izango dute ibilgailu guztiek. Laugarren gunea gune partekatuak dira, TAO gune batzuetan; bertan marra gorriak ere badaude, eta, beraz, TAO ordutegitik kanpora egoiliarrek baino ezingo dute aparkatu.

98 bide erregistratu dituzte bide publikoen inbentarioan

Prozesuak urte bi iraun du. Inbentarioan 77 bide nagusi daude jasota, eta bigarren mailako 21

M.Z. ABADIÑO

Urte biko prozesuaren ondoren, bide publikoen inbentarioa onartu zuten joan zen martitzeneko osoko bilkuran Abadiñon. Sendo SL ingeriaritza-enpresak udalaren laguntzagaz egindako

inbentarioan, 98 bide ageri dira guztira: 77 bide nagusi eta bigarren mailako 21. Udalak auzokideen parte hartzea nabarmendu gura izan du, urte bi hauetan informazio saioak, kontsultak, alegazioak eta ba-

nakako bilerak egin dituzte eta. Rafa Bilbao zinegotziaren berbetan, aurrerapauso garrantzitsua da bide publikoen inbentarioa eguneratua izatea: "Landa bideak gatazka iturri izaten dira batzuetan, eta inbentario hau erreferentziazko dokumentua izango da aurrerantzean. Bide publikoak zeintzuk diren argituko du, eta horrek egoerak hobeto kudeatzen lagunduko digu. Erreminta honek segurtasun juridikoa eta gardentasuna emango dizkigu".



@SDEIBAR

Udaberriko rock kontzertua zapatuan, ekainak 7, Mallabian

M.Z. MALLABIA

Bihar, ekainak 7, udaberriko rock kontzertua izango da Mallabian. Mallabiko frontoian egingo dute eta Mendibil eta Jasokunde Abesbatzak ere parte hartuko dute kontzertuan, Musikabia Musika Taldeagaz eta Gazte Alaiak Dantza Taldeagaz batera. Kontzertua 19:00etan hasiko da.

MENDIBIL ETA JASOKUNDE, MUSIKABIA ETA GAZTE ALAI DANTZA TALDEA ARIKO DIRA

Kirol Hiria berde kolorea hartzen

M.Z. MALLABIA

SD Eibarren Mallabiko Kirol Hiria datorren denboraldira begira martxan egotea da asmoa. Ildo horretatik, klubeko iturriek instalazio berriko lanak zelan doazen kontatu dute bere sare sozialetan. Bost zelaitik bitan belar naturala ipini dute dagoeneko.



Goiatz Pelaez Gerediagako kideak eta Erramun Osa Urkiola Landa Garapeneko presidenteak aurkeztu dute egitasmoa, Garain.

Durangaldeko ondareaz ikasteko 11 bisita gidatu

Gerediagak eta Urkiola Landa Garapenak eskualdea ezagutarazteko bisita gidatuen katalogoa osatu dute. Ekainaren 22tik irailaren 28ra arte, doako ibilbideak eskainiko dituzte, gure herrietako historia eta ondarea ezagutuaz landa-turismoa bultzatzeko

E. Herrera/ A. Basauri GARAI Gerediaga elkarteak eta Urkiola Landa Garapenak bisita gidatuak antolatu dituzte eskualdeko historia eta ondare materiala zein immateriala ezagutarazteko. Asteon aurkeztu dute katalogoa, Garain egindako prentsaurrekoan. Egitasmoaren bultzatzaileek azaldu dutenez, 25-30 laguneko taldeei eskainitako txangoak izango dira, ekainaren 22tik irailaren 28ra Durangaldeko 11 herritan egingo direnak. Era berean, bisitek landa eremuko turismo jasagarria bultzatzea ere badutela helburu esan dute.

Berbaldi ibiltariok euskara hutsez emango dituzte eta doakoak izango dira. Interesdunek aurretiaz eman beharko dute izena txangoetan, eta antolatzaileen baieztapena jaso. Horretarako, Gerediaga elkarteagaz hartu-emanetan jarri beharko dute, 94 681 80 66 telefonora deituta edo gerediaga@gerediaga.eus helbide elektronikora mezua bidalita. Bisita gidatuen katalogo osoa gerediaga.eus atarian kontsultatu daiteke. Ibilbiderik gehienak "irisga-

riak eta edonork egiteko modukoak" dira, baina euretariko batzuk luzeagoak eta aldapatsuagoak dira; Urkiolako Natur Parkeko inguruetan antolaturikoak, adibidez. Horietarako, mendiko oinetakoak jantzita eramatea gomendatu dute Gerediagak eta Urkiola Landa Garapenak, "bidea aldapatsua delako leku batzuetan".

Herririk herri

Bisita gidatuen lehenengo abiapuntua Durango izango da. Ekainaren 22an Erdi Aroko hiribildua ezagutzeko aukera eskainiko dute, 11:00etan. Ekainaren 28an Abadiñora egingo dute txangoa, Urkiolako Parke Naturalera, eta ekainaren 29an Mañariko aldatsak igoko dituzte. Uztailan Zornotzako bazterrak, Elorrioko jauregiak eta Zaldibarko garai bateko bainuetxearen historia ezagutzeko txanda izango da. Irailan Izurtza, Iurreta, Berriz, Atxondo eta Garai aldean eskainiko dituzte bisita gidatuak. Egitarauaren xehetasun guztiak anboto.org atarietan ere topatu daitezke.

Iurretan erostea bultzatzeko kanpaina berria hasi dute

50 euroko erosketagaitik haririk bako entzungailuak oparituko dituzte ekainaren 30era arte

Aitziker Basauri IURRETA

Iurretako Udalak, Dendak Bai Durangaldeko merkataritza eta ostalaritza elkartearen laguntzagaz, ekimen berri bat ipini du martxan tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko. *Erosi Iurretan eta udan (des)konektatu!* lelopean hasi du kanpaina asteon, eta ekainaren 30era arte iraungo du. Haririk bako entzungailuak oparituko dituzte herriguneko establezimenduetan 50 euroko erosketa egiten dutenei.

Oparia eskuratzeko, hainbat establezimendutako tiketak batu ahal izango dira —ekainaren 1etik 30era bitartekoak—, eta Herriarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) aurkeztu.

Erloju baten zozketa

Haririk bako entzungailuak oparitzeaz gainera, hiru Redmi Watch 5 erloju adimendu zoz-



Alkatea eta Dendak Baiko presidentea

katuko dituzte kanpainaren barruan. HAZen eskuratu daitekeen paper bat bete behar da, eta adierazitako postontzian sartu. Irabazleak uztailaren 2an jakinaraziko dituzte. Kanpainaren baldintzak www.iurreta.eus atarian kontsultatu daitezke.

Iurretak mendebaldean dituen mugarrak ezagutzeko gonbita

Iurretako Kofradiak, Zaldai mendi taldeak eta Maiztegi guraso elkarteak antolatu dute irteera, domekarako

Joseba Derteano IURRETA

Iurretako Kofradiak, Maiztegi guraso elkarteak eta Zaldai mendi taldeak elkarlanean, Mugarriz Mugarri mendi irteera antolatu dute ekainaren 8rako, domekarako. Aurtengoa laugarren aldia izango da. Aurreko urteetan, Iurreta hegoaldeko, ekialdeko eta iparraldeko mugak ezagutu zituzten, eta aurtun zirkuitua itxi eta mendebaldekoak ezagutzeko aukera izango dute bertaraten direnek. Hau da, Berriz, Muxika eta Zornotza aldekoak.

"Haurrek egiteko moduko hiru ordu inguruko ibilbide erraza izango da, eta mugarrietan geldialdiak eginez zenbait azalpen emango dugu bidean", nabarmendu dute antolatzaileek. Ibilaldia Iurretako Oromiño auzoko Ortuberriko aparkalekuan hasiko da, 09:30ean. Hala ere, kotxez bertara joaten ez dakite-

nentzat 09:00etan ipini dute hitzordua plazan.

Ibilbidea

Antolatzaileek zehaztu dutenaren arabera, Ortuberri bideirik bide Pozubaltzeraino joango dira, eta, bertatik hasita, Iurretak gainerako herriei konpartitzen dituen mugarrak bisitatuko dituzte. Bidean oilasko haztegi bat bisitatzeko geldialdia egingo dutela jakinarazi dute. Parte hartzaileek luntxategaz emango diote amaiera egunari, Ortuberriko aparkalekuan.

IURRETAK BERRIZ, MUXIKA ETA ZORNOTZA ALDEAN DITUEN MUGAK EZAGUTUKO DITUZTE

Eñaut Elorrietak kontzertua emango du Otxandion

A.B. OTXANDIO.

Eñaut Elorrietak kontzertua emango du Otxandion, *Ateosteko Bira* bakarkako proiektuaren barruan. Ekainaren 21ean izango da, San Antonio basilizan.

Bira txiki eta berezia da musikari gernikarrak hasitakoa. Antzokietatik irtenda, eliza, ermita eta basilizak lehenetsiko ditu. Soinu eta argi-ekipo soil eta zainduagaz, Elorrietak bere ibilbide osoko kanten aukeraketa zabala eskainiko du, ahots eta gitarra hutsez. Emanaldia 19:30ean hasiko da eta lekua mugatua izango da. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 10 euroan, udaletxean.

Kontzertu berezia

Musikari gernikarrak bira berezi honen barruan emango dituen kontzertuak "zuzenak" eta "biluziak" izango dira, "herri-kantuaren eta esperimentazioaren artean, ahotsaren posibilitateetan arakatuko dutenak", abeslariak azaldu duenez.

Kurutziaga ikastolak Jantoki Eko-Arduratsuaren ziurtagiria lortu du

Goi mailako ziurtagiria jaso du. Elikagai-hondakinen murrizketetan eta baliabideen optimizazioan ipini dute arreta

Jone Guenetxea DURANGO

Orain urtebete, Ausolan taldeak eta Kurutziaga Ikastolak Bureau Veritasek emandako Jangela Eko-Arduratsuaren ziurtagiria lortu zuten. Oraingo honetan, goi mailako zertifikazioa eskuratu

dutela azaldu du Kurutziagak prentsa ohar batean. Lehenengo urte honetan, elikagai-hondakinen murrizketan eta baliabideen optimizazioan arreta berezia ipini dute. Era berean, hezkuntza mailan, jasangarritasunari loturiko

proiektu garrantzitsu bi egiten aritu dira ikasturtean zehar. Alde batetik, kontsumitu barik geratu den ogi kopurua zenbatzen aritu dira hileroko ogi soberakina neurtzeko. Bestetik, ikasleak janari hondakinak pisatzen aritu dira ikasturte osoan zehar zenbat soberakin botatzen den jakiteko. “Bestalde, organikoari dagokionez, fruta azala sailkatzen aritu gara, konposterako zenbat fruta azal erabiltzen dugun jakiteko”, azaldu du Ariane Nuñez jantokiko arduradunak.



Jantokiko sukaldeak.



POLITIKAN

JESICA RUIZ
PSE-EE

Lehenengo aldiz

Zainketei buruz hitz egiten dugunean, normalean adinekoen zaintza etortzen zaigu burura, baina askoz ere gai zabalagoa da. Txikieneen zaintza oso garrantzitsua da, eta hori kontziliazioarekin oso lotuta dago. Familiek aspal-ditik jakinarazi digute arazoak izaten dituztela eskolak hasi aurretik seme-alabak zaindu ahal izateko. Hori dela eta, aurtun, lehen aldiz, haur eta gazteen sailetik udaleku bat jarriko dugu martxan irailean. Nola funtzionatzen duen ikusteko proba bat egingo dugu: 80 plazako udaleku artistiko bat izango da, 3 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua. Bost egunez Durango ezagutuko dute kulturaren ikuspuntutik: Museoa, San Agustín antzokia, Bizenta Mogel liburutegia, Zugaza zinema... eta Plateruenan amaituko dute azken eguna.

Espero dugu txikienek gozatzea eta, aldi berean, kulturaren munduan murgiltzea. Horrez gain, gure helburua da aste horretan familien kontziliazioa eramangarriagoa izatea.

Gure ustez, hori da udalak herritarren beharrak entzun, landu eta irtenbidea emateko modua. Gogoratu, aurtun lehen aldiz, iraileko udalekuak Durangon.

DURANGALDEA ASTEON

Ekainaren 13an San Antonio eguna, Urkiolan

ABADIÑO Datorren barikuan, ekainak 13, San Antonio eguna ospatuko dute Abadiñon. 10:00etatik 15:00etara ganadu eta baserriko produktuen azoka egongo da, eta 11:00etatik 14:00etara trikitilariak egongo dira. Bestalde, Anjel Mari Peñagarikano eta Sustrai Colina bertotan arituko dira. Eta 10:00etatik 13:00etara bitartean meza egongo da orduero. Ekainaren 15ean, *Errepetiziño domeka* ospatuko dute.



Bañon irabazle Stop Bide Indarkeriaren lehiaketan

DURANGO Santiago Bañon argazkilari nafarrak irabazi du *Ikusi eta ikasi* lehiaketako sari nagusia, *¡Silencio! Se rueda!* lanagaz. Jon Santandreuk irabazi du bigarren saria, *Kontzienteki bidaiatzea* lanagaz; eta hirugarren lekua Oscar Saavedrarentzat izan da. Bestalde, Stop Bide Indarkeria elkarteak mugikortasun arduratsuaz eta seguruaz kontzientzia hartzera deitu du.



Hamar lagun atxilotu dituzte sexu esplotazioaren aurkako operazio batean; tartean, Zornotzan

ZORNOTZA Ertzaintzak eta Espainiako Poliziak 19 lagun atxilotu dituzte sexu esplotazioagaz loturiko operazio batean. Nazioarteko erakunde kriminal bateko kide izatea egotzita atxilotu dituzte guztiak. Ertzaintzak hamar atxilotu ditu, Zornotzan, Gasteizen, Bilbon eta Basaurin. Gainerakoak Espainiako Poliziak atxilotu ditu, operazio berean; tartean, Irunen eta Iruñean.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta
Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK




Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



SUDOKUA

Kokatu beheko formak beheko lauki zurietan.



ZAZPI DIFERENTZIAK



MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan.



ITZALAK

Zein itzal dagokio marrazki bakoitzari.





Gotzon Gomez, Gerediaga elkartearen bulegoaren aurrean.

"Gerediagaren lidergoa hartzeak bertigoa ematen dit, baina eutsiko diogu mailari"

GOTZON GOMEZ GEREDIAGA ELKARTEKO PRESIDENTEA

ONDAREA Maiatzaren 25az geroztik, Gerediaga Elkarteko presidentea da Gotzon Gomez; durangarrak karguan 22 urtez egon den Nerea Mujikaren lekukoa hartu du

Aritz Maldonado DURANGO

Gerediaga Elkarteak 60 urte beteko ditu aurten, eta urteurrenagaz batera zuzendaritza batzorde berria eratu dute. Hamar-kada bi baino gehiagoan elkar-tearen aurpegiak ezagunena izan eta gero, Nerea Mujikak presidentetza utziko duela iragarri zuten urteroko batzar nagusiaren ondoren. Gotzon Gomezek hartuko du haren lekukoa. Asun Elorriaga izango da presidenteordea. Ekainaren 14an, Gerediaga Elkartearen sorrera-

ren 60. urteurrena ospatzeko ekitaldia egingo dute, eta bertan, Mujika omentzeaz gainera, 60. Durangoko Azokaren irteerako pistola-tiroa egingo dute. "Ospakizuna ere izango da, jakina. Batzuetan, jendea beldur da os-

"IRAGANA ETA GAUR EGUNGOA ZAINDU EGIN BEHAR DIRA, BAINA DATORRENARI ADI EGONDA"

pakizunetarako, baina elkarte batek 60 urte betetzea pozgarria eta ospatu beharrekoa da. Gainera, Nerea Mujikari merezi duen omenaldia egiteko aukera bikaina ere bada", esan du Gomezek.

Zelakoa izan da kargu aldatzea?

Gerediaga auzoko foru-zelaiko ekitaldia oso hunkarria izan zen. Alde batetik, Nerea Mujikak 22 urte egin dituelako presidente lez, eta hori erraz esaten da, baina ez da erraz egiten. Gutxi-neko aitortza izan zen, hamar-

kada bi horietako argazkiak eta irudiak ikusi genituen, besteak beste. Bestalde, Nerea nire irakaslea izan zen unibertsitatean, eta berak animatu ninduen Gerediagan sartzera lehenengo eta zuzendaritzara geroago. Beraz, bere lekukoa hartzean bere ibilbidea gogoratzeko eta omenaldi txikitxoak egiteko aprobetxatu nuen, eta ni neu ere hunkitu nintzen. 22 urte denbora asko da halako ardura bat izateko.

Zein ekarpen egin dio Mujikak Gerediagari urte hauetan?

Hiru ekarpen oso garrantzitsu egin dituela iruditzen zait. Alde batetik, junta sendo bat sortzea eta bertan hainbat belaunaldi batzea; 60, 50, 40 eta 30 urte buel-tako jendea dago hor, eta hori ez da erraza uztartzeko. Bestetik, eskualde ikuspuntua indartzea, Durangaldea ez dela Durango bakarrik erakustea, beste herriek ere berezitasunak dituztela erakustea. Eta, azkenik, Durangoko Azokak gaur egun duen sona izateko lidergoa berak eraman du. Niri bertigo apur bat ematen dit, gauzak oso ondo egin dituelako eta langa oso goian ipini duelako, baina ahal duguna egingo dugu eta eutsiko diogu mailari.

Orain, erronka nagusia ondareari eustea da. Alde batetik, ukiagarria dena; eraikinak, adibidez, baina ageri ez direnak ere zaindu egin behar dira. Helburu horregaz sortu zen, hain zuzen ere, Gerediaga Elkarte orain 60 urte. Iragana eta gaur egungoa zaindu egin behar dira, baina etorri daitekeenera ere adi egon behar da.

Elkartegintzaren erronka nagusietariko bat gazteak erakartzea da.

Guk ikusten dugu, adibidez, badaudela gazteak zaletasunak dituztenak, baina gero ez dira ausartzen horiek kaleratzera, ez dutelako biderik topatzen. Sormen Beka, adibidez, hortik doa, Durangaldeko gazteak, edo Durangaldeko gaiak jorratzen dituztenak, bultzatzeko; gainera, Astola aldizkariaren bitartez ikusarazi daitezke lan horiek gero. Gazteen kontua DRTtik ere ezagutzen dut. Normala den

moduan, gazteak ez dira joaten nagusiagoak dauden elkarteetara, ez zaizkie erakargarriak egiten, niri ere gertatzen zitzaidan bere garaian. Euren ekarpenak elkarte barruan egitea gustatuko litzaiguke, badutela-ko zer esan.

Asun Elorriaga izango duzu ondoan.

Asunen moduko pertsona bat ondoan izateak konfiantza eta lasaitasuna ematen dizkit. Urte asko darama barruan, eta beste hainbat arlotan ere ibilbide luzea egin du; Hizkuntza Eskolako zuzendaria izan zen adibidez, eta oso literatura zalea da. Askok dakien pertsona da, eta beragaz eta gainerakoekin asko ikasi dut Gerediagan daramatzadan urteetan.

Belaunaldi aldaketa izaten ari da Gerediaga.

Argi dago bide honetan aitzindari izandakoek sekulako lana egin zutela, baina transmisio bat egon behar da, erreleborik izan ezik hil egingo delako. Ekainaren 14ko ekitaldia ere hortik doa. Hunkigarria izango da, ibilbide osoa jasoko duena. Bidea hasi zuten Gerediagako kideak gogoratzeko ere baliagarria izango da. Atzera begiratzek bertigo apur bat ere ematen du, ikusita lehenengo Liburu eta Disko Azoka zena nola bihurtu den gaur egungo Durangoko Azoka. Erronkak handitzen doaz, baina pozgarria ere bada. Funtsean ospakizun bat da, eta ematen du batzuetan beldurra ematen duela ospatzek, baina 60 urteko ibilbidea ospatzekoa da. Sortzaileetarikoz batzuk, adinagaitik, joan egin zaizkigu, eta haientzat zein bizirik daudenentzat izango da omenaldia. Hamarkada hauetan lagun mordoa igaro da elkartetik, lagun askok eskaini diote euren denbora. Ekitaldi honek Durangoko Azokaren 60. urteurrenari hasiera emango dio, zelanbait esateko.

Beraz, Gerediagak badu gogoa lanean jarraitzeko.

Horrela ikusten gaituzte kanpotik, eta guk ere sinesten dugu horretan. Zerbaiti ekiten diogunean, ganoraz ekiten diogu, baliabideak eskainita. Eta horretan erakundeen jarrera ere oso garrantzitsua da. Eta nahiko sintonian gaudela esango nuke. Batzuetan, kultur arloko gauzak ez dira behar den beste baloratzen; epe laburrean lortu gura izaten dira etekinak, eta hori ez da horrela.

"BATZUETAN KULTUR ARLOKO GAUZAK EZ DIRA BEHAR DEN BESTE BALORATZEN"

Ikuskizun bigaz ekingo diote Zale topaguneari

ANTZERKIA Gaur, barikua, Elorrioko I. Antzerki konpainia ez profesionalen mostra egingo dute Arriolan; 'Alperrak, tunanteak eta maleanteak' eta 'Hurrengo geltokia' lanak aurkeztuko dituzte, eta ondoren mokadua eta solasaldia egingo dituzte

Aritz Maldonado ELORRIO

Hasieran jaialdia izateko bokazioz sortu bazuten ere, mostra bilakatu dute Zale, Elorrioko I. Antzerki konpainia ez profesionalen topaketa. Elorrioko Arrapalan antzerki taldeak antolatatu du Zale, antzerkizaleen artean sarea prestatzeko. "Antzerkian, amateur mailan, gehiena erdaraz da; guk euskaraz dagoena ezagutu gura dugu, beste talde batzuk ezagutu eta zirkuitua zabaltzeko; hainbat hiletako lana egiten dugu obra bakarra lantzen, eta emanaldi bategaz amaitzen dugu ibilbidea", azaldu du Mari Baseta antzerki taldeko kideak. "Arriolakoez ideia garatzen lagundu digute", gehitu du. Hain zuzen ere, bertan izango da mostra. 20:00etatik aurrera, Gilkitxaro konpainiak *Alperrak, tunanteak eta maleanteak* eta Karrikak *Hurrengo geltokia* taularatu dituzte. Ondoren, mokadua eta solasaldia egongo dituzte Ate-neoan. "Topagune bat sortzea gura dugu, euskarazko antzerkigintza



Karrikaren 'Hurrengo geltokia'.

amateurrak zein bide duen edo zein garapen izan dezakeen aztertzeke", gehitu du Basetak. 20:00etan hasiko da lehenengo emanaldia. Mostraren prestaketaz gainera, Arrapalan antzerki taldeak beste lan batzuekin ere jarraitu du. Iaz

Abdukzioa, ke barbaridad! obra antzeztu zuten, eta herriko beste ekimen batzuetan ere parte hartu dute; adibidez, 24 Ordu Digitalean lehiaketan. "Antzeztea gustatzen zaigu eta horretan jarraituko dugu", nabarmendu dute.



Andreu Uriarte, bere lanen artean.

Andreu Uriarteren lanak ikusgai egongo dira gaurtik aurrera

ARTEA Gaur arratsaldean egingo dute 'Bizitza baten isileko lana' erakusketaren irekiera ekitaldia, 18:30ean

Aritz Maldonado DURANGO

Durango Arte eta Historia museoak lehenengoz erakutsiko ditu Ignacio Andreu Uriarte artista durangarraren lanak. Erakusketak sei hamarkadako lana batzen du, 101 obra, "bizi oso bateko lana", Garazi Arrizabalaga museoak zuzendariaren berbetan. "Lan hauek oso interesgarriak dira Durango azken urteetako historia hobeto ezagutzeko. 60-70 hamarkadetak bizitza kulturala jasotzen du", azaldu du Arrizabalagak. Hain zuzen ere, horregaitik deitzen da erakusketa *'Bizitza baten isileko lana'*. Uriar-

tek Durango Azokako (Liburu eta Disko Azokaren garaian) lehenengo kartela, Kriskitinen bandera eta Tronperriren irudia sortu zituen, besteak beste; 1966an sorturiko *Rojo y Negro* pieza ere badago erakusketan, Nafarroako Museoak utzita. "Erakusketa hau aitortza bat da, funtsean", gaineratu du Arrizabalagak.

Berbaldia, 18an

David Fuente historian aditu eta erakusketako komisarioak erakusketari buruzko berbaldia emango du ekainaren 18an, 18:30ean.



GAI LIBREAN

IGOR GALARZA INTXAUSTI KAZETARIA

Euskara, espazio eta arnas barik

Ezinbestekoa dute euskarak eta euskal kulturak ahal duntzea. Espazioa galtzen ari diren sentsazioa areagotu da urteotan. Euskaraldiak arnagune bat sortzen du arnasa behar duen gune horietan, baina ezin dugu arnagune horiek bi urtean behin soilik edukitzeko luxurik izan. Euskara espazio berrietara, edo iraganean ukatuak izan zaizkionetara zabaltzeko ahaleginean, euskara bera, gurata edo gura barik, bazter geratzen ari da, eta euskararekiko zein euskal kulturarekiko oldarra areagotzen doa.

Gure herrian jazo diren kontuei buruz berba egiteko sare sozialetako ditxosozko talde batean gazteek gida baimena euskaraz ateratzegatik jaso dezaketen laguntzaren aurkako oldarraldia sortu da. Delako ekimen hau udala osatzen duten alderdi guztiek (bai, Estatuko alderdia denak ere bai) babestu dute; aldiz, alderdi horiei botoa eman dieten batzuk aurka agertu dira, eta, zelan ez, Euskal Herriak bizi izan dituen konbultsioz beteriko

garaiak birgogoratu dituzte, ekimen hori garai haiekin loturik. Okerrena da, baina, zilegitasuna eta etikoaren barruan sartzen ditugula halako astakeriak esan ahal izatea. Eta oldarraldi zapaltzaileei espazioa emanez gero, zapaldua desagertua izango da (ez da beharrezkoa Palestinen adibidea jartzea, ezta?).

"OLDARRALDI ZAPALTZAILEEI ESPAZIOA EMANEZ GERO, ZAPALDUA DESAGERTUA IZANGO DA"

Eta beharbada borroka norbanakotik ere galtzen ari da euskara. Ez dugu erreparorik txosnetan erdarazko musika berria jartzea eskatzeko eta txosnen izaera "politiko eta ideologikotik at" lege ikusteko, ez eta politikoa den oro despolitizatzeke ere. Aste honetan Nazioen Ligan Euskal Herriko puntista batzuek Espainiako Selekzioarekin jokatu dute. Euretako batek adierazi du: "Politika alde batera laga, kirol arloari begiratu, eta Espainiarekin aritzea erabaki nuen (...) Euskal selekzioarekin arituta, agian gero ez nuen aukera izango berriro Espainiarekin jokatzeko". Ezin duzu politika albo batera laga, batakaren ofizialtasuna ukatu eta zentsuratu gura duen beste selekzioarekin jokatzeko aukera mantendu gura baduzu. Honek argi erakusten du sistema, instituzioak, egoera desbirtualizatzeko lanean aurrerapausoak ematen ari direla. Eta horrek ondorio larri bat dakar, lehen lerroetan aurreratutakoa: euskara eta euskal kultura espazioa galtzen ari dira.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 6

DURANGO Jolasak

Jokai: Euskal mitologian inspiratutako jolasak.
San Fausto auzoan, 17:30ean.

DURANGO Musika

Sugarri fanfarrearen kalejira.
Alde Zaharrean, 19:30ean.

DURANGO Erakusketa

Eskola arteko XVI. marrazketa, pintura eta eskulanen lehiaketako lanak.
Ezkurdi aretoan, ekainaren 15era bitartean.

ELORRIO Antzerki Jaialdia

Zale. Elorrioko I. Antzerki Konpainia Ez Profesionalen Mostra: 'Alperrak, tunanteak eta maleanteak' (Gilkitxaro) + 'Hurrengo geltokia' (Karrika).
Arriola antzokian, 20:00etan.

GARAI Kantua

Kantu lagun.
Plazan, 20:00etan.

IURRETA Antzerkia

'El salto de Léucade' (Skené Teatro).
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

MALLABIA Jaialdia

Mallabia futbol taldearen denboraldi amaierako jaia, 16:00etan, eskolan. Biharko Izarrak txapelketako finalak.
Frontoian, 19:00etan.

OTXANDIO Mekoletako jaiak

Txupinazoa, 20:00etan.
Perlata + P.I.L.T. + Trikitixa Kontrairo.
Mekoleta auzoan, 21:30ean.

ZORNOTZA Antzerki amateurra

'De desastre a Verona' eta 'Asesinato en el restaurante Anboto'. Markeliñek lagunduta eta zuzenduta, Zornotzako taldeen obra bien aurrestreinaldia.
Zornotza Aretuan, 20:00etan.

ZORNOTZA Erakusketa

'24 Emakume zientzian, artean eta letretan' erakusketa.
Zubiondon, ekainaren 16ra arte.

ZORNOTZA sanantonioak

Jaiei hasiera bolanderekin eta kanpai hotsagaz, 19:00etan.
Sardina jana, 19:00etan.
Mus txapelketa, 20:00etan.
DJ Kaburr, 22:30ean.
San Antonio Elgezabal auzoan.

ZAPATUA 7

BERRIZ Asentzioak

Umeentzako oihai tailerra eta ikuskizuna, 18:00etan.
Auzo afaria Mirari eta Aintzane trikitilariak girotuta, 20:30ean.
Andikoa auzoan.

DURANGO Bisita gidatua

'Eskultura publikoa'. Izen ematea: 94 603 39 38 telefono zenbakian, turismo@durango.eus helbide elektronikoan edo Turismo Bulegoan.
Turismo Bulegoan (12:30-14:00).

DURANGO Euskal Jaiak

XXI. zesta-punta txapelketako finalak eta euskal pilota maratona, 17:00etan, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.
Euskal dantzen erakustaldia, 18:00etan, Andra Mariko elizpean.

Durango hiria txistu kontzertua, 20:00etan, San Agustín kulturgunean.
Durango.

DURANGO Kontzertua

Heitxi + Aimarz eta Malakias.
Plateruenean, 21:30ean.

IURRETA Bizikleta irteera

Andrakara bizikleta irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarte.
Iurretan, 08:00etan.

MALLABIA Udabarriko kontzertua

Mendibil abesbatza, Musikabia eta Gazte Alai dantza taldea.
Herriko frontoian, 19:00etan.

OTXANDIO Sanbernabeak

Urduri dantza taldea, 17:00etan.
Potx magoa, 18:00etan.
Joselu Anaia, 19:00etan.
Eusko Label pintxoak, 19:30etan.
Joselu Anaia, 22:00etan.
Mekoleta auzoan.

ZORNOTZA Sanantonioak

Poteoa trikitilariekin, 13:00etan.
Auzo bazkaria, 15:00etan.
Igel eta tortilla txapelketak, 19:00etan.
Obanakue taldea, 22:00etan.
San Antonio Elgezabal auzoan.

DOMEKA 8

ABADIÑO Azoka

Ekoizle eta artisauen azoka.
Ardi ile-mozte erakustaldia, 12:00etan.
Txanporta plazan (10:30-14:00).

ABADIÑO Kontzertua

Amman&Waywar Sons.
Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.

DURANGO Sari banaketa

Eskola arteko XVI. marrazketa, pintura eta eskulanen lehiaketa.
Ezkurdi aretoan, 13:00etan.

DURANGO Bisita Gidatua

'Durango historian zehar'. Izen ematea: 94 603 39 38 telefono zenbakian, turismo@durango.eus helbide elektronikoan edo Turismo Bulegoan.
Turismo Bulegoan (10:30-12:00).

DURANGO Dantzaldia

Adinekoentzako Dantzaldia.
Ezkurdi, 18:30etik 20:30era.

DURANGO Euskal Jaiak

XIV. Peter Memoriala pilota txapelketako finalak, 10:30etan.
Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

IURRETA Bizikleta irteera

Baranbio eta Altubera irteera.
Iurretan, 08:00etan.

IURRETA Mendi irteera

Mugariz Mugarri mendi irteera.
Ortuberrin (Oromiño), 09:30ean.
Kotxean joateko, 09:00etan, plazan.

OTXANDIO Sanbernabeak

Marianito-edan musikatua.
Mekoleta auzoan, 13:00etan.

ZORNOTZA Sanantonioak

Meza, 11:30ean.
Luntxa trikitilari eta txistulariek alaituta, 13:00etan. Jarraian, herri kirol parte hartzaileak.
Puzgarriak eta animazioa, 16:30ean.
Ondoren, parrillada eta txokolatea.
San Antonio Elgezabal auzoan.

ASTELEHENA 9

ZORNOTZA Sanantonioak

Briska txapelketa.
San Antonio Elgezabalen, 18:00etan.

MARTITZENA 10

ABADIÑO Liburu aurkezpena

Ehun zaldi trostan (Ainhua Urien).
Udal Mediatekan, 19:00etan.

ZINEMA

DURANGO**ZUGAZA ZINEMA****Sirat**

Barikua 6: 18:00, 20:30.
Zapata 7: 19:00, 21:30.
Domeka 8: 19:30.
Astelehena 9: 17:45, 20:15.
Martitzena 10: 17:45, 20:15.
Eguaztena 11: 19:00.

Ballerina

Barikua 6: 18:00, 20:30.
Zapata 7: 19:00, 21:30.
Domeka 8: 19:30.
Astelehena 9: 17:45, 20:15.
Martitzena 10: 17:45, 20:15.
Eguaztena 11: 19:00.

El ritual

Barikua 6: 18:00, 20:30.
Zapata 7: 16:45, 22:00.
Domeka 8: 19:30.
Astelehena 9: 17:45, 20:15.
Martitzena 10: 17:45, 20:15.
Eguaztena 11: 19:00.

Cómo entrenar a tu dragón

Zapata 7: 19:30.
Domeka 8: 16:45.

Rescate congelado

Zapata 7: 16:45.
Domeka 8: 17:00.

Lilo & Stitch

Zapata 7: 16:45.
Domeka 8: 17:00.

ZORNOTZA**ZORNOTZA ARETOA****Misión: Imposible. Sentencia final**

Zapata 7: 20:00.
Domeka 8: 20:00.

Kayara. Inka Gerraria

Zapata 7: 17:00.
Domeka 8: 17:00.

ELORRIO Berbaldia

'Guggenheim Urdaibai Stop'.
Iturri kultur etxean, 19:00etan.

EGUAZTENA 11

OTXANDIO Sanbernabeak

San Bernabera igoera, 09:00etan.
Mendi erromeria, 10:00etan.
Meza eta luntxa, 12:30etan.
Mus eta briska txapelketa, 17:00etan.
San Bernaben.

EGUENA 12

DURANGO Euskal Jaiak

Itsasoko herri kirolak, 09:30ean.
Joko tradizionalen topaketa, 10:00etan.
Oihan Vega, 11:45ean.
Ezkurdi.

MAÑARIA Afari musikatua

Pelma & Luis Selektotarrak girotutako afaria. Lekua hartu behar da (94 442 01 07).
Errekondo tabernan, 20:00etan.



BART...SAXI ETA DANIEL ARTEAGA

DURANGO Kontzertua

Durango Bartolome Ertzilla musika eskolan sortutako Bart... Sax! taldeak kontzertua emango du Durangon, gaur. Sondikako Danel Arteaga abeslari gazteagaz igoko dira oholtzara.
Ekainak 6, barikua, Plateruena kultur aterpean, 19:00etan.

Euskadiko trontza finala, zapatuan, Landako Gunean

HERRI KIROLAK Durangoko Kirol Egunak ekimenaren barruan, Euskadiko trontza mistoko eta lasto altxatzeko txapelketak lehiatuko dituzte zapatuan, Landako Gunean. Trontza mistoan nobedade bat dago: enbor bat bertikalean ipinita egongo da, lehenengoz

J.Derteano DURANGO

Zapato eta domeka honetarako Kirol Egunak-en lehenengo edizioa antolatu dute Durangon, Landako Gunean. Ekimenaren helburua kirol klubaren eta toki-ko elkarten lana aitortzea eta ikusaraztea da. Ekimen horren barruan, herri kiroletako Euskadiko txapelketa bi izango dira: trontza mistokoa eta lasto altxatzearena. 12:00etan hasiko dira.

Trontza mistoko txapelketan nobedade bat dago: hiru enborretako bat bertikalean ipiniko dute. Beraz, enbor horretan bikoteek alde batetik bestera egin beharko dituzte mozketak, goitik behera barik. Trontza mistoan lehenengoz egingo dute horrela, ikusgarritasuna handitzeke.

Lau bikote lehiatuko dira. Garbiñe Lopez de Uraldek eta Ion Lapazaranek iaz irabazitako txapela defendatuko dute. Beste bikote bat Otxandion bizi den Ruth Linaza lemoarrak eta Kimetz Lapazaranek osatuko dute.



Trontza mistoko txapelketan lau bikote lehiatuko dira. **HERRI KIROL FEDERAKUNDEA**

Azken hori Ionen semea da. Gainerako bikote biak hauek dira: Miren Eizmendi-Oier Aizkorbe eta Sara Jimenez de Aberrasturi-Mikel Gonzalez.

Lasto altxatzeko txapelketak hiru parte hartzaile izango ditu, iaz baino hiru gutxiago: Beñat Amade bizkaitarra eta Oier Gonzalez eta Mikel Gonzalez arabarrak.

Askotariko ekimenak

Kirol Eguneako egitarauaren barruan, bihar helduentzako gimnasia eta yoga saioak ere egongo dira, besteak beste. Bestalde, domekan, 12:00etan, Zumbathon saioa hasiko da. Egun bitan kalistenia saioak izango dira Ibaizabaleko parkean, 11:00etan.

"Enbor bertikala erronka handia da, teknika aldatu egiten delako"

RUTH LINAZA OTXANDIO 1983

Ruth Linazak 20 urtetik gora daramatza herri kiroletan. Durangon trontza mistoko txapelketan parte hartuko du, Kimetz Lapazaranegaz batera.

Zer helburu duzue txapelketan?

Txapela urrun ikusten dut. Izena eman dutenen artean, Garbiñe Lopez de Uralde eta Ion Lapazaran puntutxo bat gorago daudela uste dut. Ion Abadiño Sokatira Taldeagaz munduko txapelketak irabazitakoa da eta sega munduan ere erreferente bat da. Garbiñek 30 urte daramatza trontzan, eta txapel asko ditu. Beraz, Kimetz eta biok lan txukun bat egitea dugu helburu.



Ruth Linaza trontzalaria.

Zelan ikusten duzu enbor bertikala mozteko lana?

Emakumeetan edo mistoan sekula ez da enbor bertikalik moztu. Beraz, erronka handia da, lan desberdina delako. Teknika aldatu egiten da, esijentzia handiagoa eskatzen du, eta beste prestakuntza mota bat. Alde horretatik, ikusgarriagoa izan daiteke. Hori

positiboa da. Baina, beste aldetik, alde negatiboa hau izan daiteke: iaz zortzi bat bikote eman genuen izena, eta aurten lau baino ez gaude. Plaza da, ez da hainbeste beteko. Zein izan daiteke arrazoiak? Ebaketa horizontaletan eta bertikalean erreminta diferenteak erabiltzen ditugu. Trontza garestia da. Trontza on batek 3.000 euro balio dezake. Gastu izugarria da. Eta diru laguntzak herri kirol nagusietara bideratzen dira normalean: aizkorara, harri-jasotzera...

Zelan baloratzen duzu txapelketa Durangon izatea?

Garrantzitsua dela uste dut. Plazak herri handietara eramatea inportantea da. Herri txiki batean baino jende gehiagok ikusiko du Durangon. Azken batean, durangarrek zenbat bider ikusi ahal izan dute bertatik bertara trontza saio bat? Herri kirolei halako ikusgarritasuna ematea garrantzitsua dela uste dut.

Betsaide Elorrio Euskal Kopako txapeldun, final lehiatuan

ERRUGBIA Euskal Ligako azken fasea irabazita, liga erregularreko talderik onenak denboraldia borobildu du



Betsaide Elorrioko jokalaria, garaipena ospatzen. **ELORRIO RUGBY TALDEA**

J.D. ELORRIO

Euskal Ligako txapelketa irabazita, Betsaide Elorrio taldeak denboraldian zehar askotan erakutsitakoa berretsi zuen joan zen asteburuan: aurten ligako talderik onena izan dela. Finala Gasteizen jokatu zen eta Universitario Bilbao taldea izan zuen kontrario. Puntu askoko partidua lehiatua jokatu zuten eta azkenean elorriarrak nagusitu ziren: 40-33. Jokalariak hara joandako zaleekin ospatu zuten lorpena.

Liga erregularrean, Elorrio Rugby Taldea izan da talderik onena. 20 partidutik 18 irabazita, lider amaitu du, eta ez da lehenengo aldia izan. Hirugarren urtez jarraian amaitu du lider Euskal Ligan. Oraingoan, ostera, garaikurrak borobildu du denboraldia.

Aroa Gorostiza ziklista elorriarra Euskadiko txapeldun geratu da

TXIRRINDULARITZA 26 urteko elorriarra txirrindularitzara bueltatu da aurten, eta geroago eta sasoi hobean dago

J.D. ELORRIO

Aroa Gorostiza (Elorrio, 1999) txirrindularitzara bueltatu da aurten, Eulek-Nuuk taldeagaz, eta pedal-kolperik ez duela galdu erakusten dabil. Joan zen zapatuan Euskadiko txirrindularitza txapelketak jokatu ziren Sopelan, eta Gorostiza txapeldun geratu zen. Elorriarrak esan du lasterketa "kaotikoa" izan zela, ihesaldi saiakera asko egon zelako. Bosgarren tokian amaitu zuen proba, baina bera izan zen EAEko lehenengo ziklista, eta, beraz, berarentzat izan zen txapela.



Gorostiza eskuman, txapela jantzita.



Zesta-punta txapelketako jardunaldi bat. DUJA DURANGO JAI ALAI

Celaya-Unda eta Urrutia-Oierdi zesta-puntako txapelaren bila

ZESTA-PUNTA Euskal jaia txapelketako finala jokatu dute zapatuan. Beste hainbat partidu ere antolatu dute

J.D. DURANGO
XXI. Euskal Jaia Zesta-Punta Txapelketako bikote irabazlea zapatu arratsaldean erabakiko da, Ezkurdi Jai Alai pilotalekun. Celaya-Unda eta Urrutia-Oierdi dira txapelaren bila lehiatuko diren bikoteak.

Zesta-puntagaz gainera, pilotari eskainitako jardunaldi oso bat antolatu dute egun horretarako. Euskal pilota maratonia 16:30ean hasiko da, esku pilotari durangarren arteko partiduekin; segidan, emakumeen pala partidu bat egongo da Elorrioko Hori Hori elkarteko gazteekin.

Partidu horren ondoren hasiko da zesta-puntako finala, 18:30 inguruan. Sari banaketagaz amaituko dute bihar arratsaldeko jardunaldia.

Finalerdiak
Joan zen asteburuko finalerdietan Celayak eta Undak aurreikuspenak bete zituzten Garat-Salaberry bikoteari irabazita. Bigarren finalerdian, oster, Urrutiak eta Oierdik ezustekoa eman zuten faborito argiak ziren Aldazabali eta Ataini irabazita. Partidua luzea eta gogor-gogorra izan zen.

Eneko Boveda Lezamako zuzendari berria da

FUTBOLA Urtebeterako kontratua sinatu du. Durangarrak Athleticen oinarritzko taldeen ardura izango du

J.D. DURANGO
Eneko Boveda durangarra Lezamako zuzendari berria da. Halaxe jakinarazi du Athleticcek aste honetan. Durangarrak denboraldi baterako kontratua sinatu du eta gizonen eta emakumeen oinarri-taldeak kudeatuko ditu. Bilbon Ingeniaritza ikasketak egin eta Futbolean Goi Mailako Kirol Teknikari graduatua izanik, Bovedak (36 urte) rol garrantzitsua bete du 2022tik futbol profesionalean eta 23 urtez azpiko jokalariaiek talderatze-ko, eta azken urte bietan Bilbao Athleticen koordinazio lanetan aritu da.



Eneko Boveda. ATHLETIC CLUB



lazko finalerdiaren sari banaketa ekitaldia.

Peter-en oroimenezko pilota finalak jokoan, domekan

PILOTA Kadeteen eta nagusien mailako txapelak egongo dira jokoan, nesketan zein gizonetan

J.D. DURANGO
Kanporaketarik kanporaketa argitzen joandako bideari behar den moduko errematea emango diote domeka honetan. Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak Peter Memorialaren 14. edizioko finalak hartuko ditu, 10:30ean.

Guztira, lau txapel banatuko dituzte: bina gizonetan eta emakumeetan. Gizonetan kadete mailako finala Lopez-Ferrero eta Saenz de la Cuesta-Armendia bikoteen artekoa da. Nagusien finala Carrasco-Larrañaga eta Perez-Urbe bikoteek jokatuko

dute. Emakumeen finalak pala-koak dira. Kadeteetan Telle-txea-Bengoetxea eta Lizundia-Axkoeta bikoteak arituko dira, eta nagusietan Arriaga-Areitio eta Landa-Cavello bikoteak. Goiza sari banaketa ekitaldiagaz amaituko dute.

Durangoko Pelota Klubak beste hitzordu esanguratsu bi ere izango ditu. Ekainaren 14an pilota partida profesionalak jokatuko dituzte Ezkurdin, Bizkaia Torneoko final-laurdenak. Bestalde, ekainaren 20an kurtso amaierako Pilota Eguna ospatuko dute.



JOKALDIA

ALFONSO ARROIO MONASTERIO KIROL KAZETARIA

Laguntzaile isila

Denboraldi amaieran fokuetako argiak amatatuko dira eta hemezortzi urtean eskainitako funtzioari amaiera emango dio. Langile otzana, isila, preziatua, balio handikoa; dena ez baita irabaztea. Taldeburuari irabazten laguntzea gehiago asebate duen ziklista izan da. Liderrek jasaten duten presioa bainoago izan du zeregin garrantzitsu batean munduko onena izatea. Argia, lasterketarako interpretatzeko gaitasun paregabea duela erakutsi du ibilbide osoan zehar. 20 urterekin debutatu zuenetik, dena ez da arrosa kolorekoa izan. Duela bederatzi urte Algarven izandako eroriko larri batek ia gorpildun aulki batera eramane zuen. Une gogor horretan adorea eta indarra aterata, aurrera egitea lortu zuen (nola gainera!). Gaztetan erlojupekoan espezialista, nekez ahaztuko du profesioaletako lehen garaipena. Erromandian izan zen, bere urtebetetze egunaren bezperan, 23 urte zituela. Ordutik beste hamar erdietsi ditu, guztiak modu berean, bakarkako lanean. Alta, bere

"LANGILE OTZANA, ISILA, PREZIATUA, BALIO HANDIKOA IZAN DA; DENA EZ BAITA IRABAZTEA"

"TALDEBURUEI ITZULI HANDIAK IRABAZTEN LAGUNTZEA IZAN DA BERE GARAIPENIK HANDIENA; GEHIEN BETE DUENA"

garaipenik handiena taldeburuei itzuli handiak irabazten laguntzea izan da, eta gehien bete duena. Nairo Quintana, Egan Bernal eta Geraint Thomas izan ditu lider. Movistarrekoarekin Giroa eta Vuelta irabazi zituen. Skyren garaian, galestarrari Tourrean gailentzen lagundu zion eta Ineoseko kolonbiarra Olinpora eramane zuen Tourrean eta Giroan. Bernalen lagun mina, 2020ko Tourra baino ez zuen utzi amaitu barik. Liderrak etxera bidea hartu eta bere ondoan egotea erabaki zuen. Bidaia zalea, hurrengoak nora eramango duen pentsatzen hasita egongo da. Atzera begira jarrita, harro egongo da egindakoaz, munduko onena izan baita. Urte berritik aurrera gazteei bere jakituria transmititzeko astia izango du eta hori baliatu beharko lukete behe mailetan dabilen ziklista guztiek. Baina orbaintxo bat ikusten diot bere jardunari. Gure hizkuntza ikasten saiatu beharko luke, gazteek horrelako izarrek euskaraz hitz egiten dutela jakin dezaten. Zorionak, Jonathan.

GUARDIAKO BOTIKAK

Ekainak 6, BARIKUA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Ekainak 7, ZAPATUA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Ekainak 8, DOMEKA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Ekainak 9, ASTELEHENA
09:00-09:00
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Ekainak 10, MARTITZENA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Ekainak 11, EGUAZTENA
09:00-09:00
De Diego, Intxaurrondo 22. - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Ekainak 12, EGUENA
09:00-09:00
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK



IURRETA
Auritz
Etzeko dantzariak 3 urte egin ebazan eta urtegune familian ospatu gendun. Zorionak, Auritz, eta mosu potolo bat danon partez.



Luis Mari
Zorionak familia guztian partez. Zuk egindako perretxiko tortilla oso ona egon zan. Eskerrik asko.



ABADIÑO
Jakes
Zorionak, Jakes! 11 urte ja! Merezitako ospakizuna egingo dugu asteburuan. Segi bazterrak nahasten eta gu harritzen. Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez!



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
📍 gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Ekhi (1023.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA



Ekainak 6, barikua.



AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA





Okm:

batzen gaituen
distantzia

 **anboto**
kide

BERRIA!

BED'S

- Momentuko deskontuaren gainean %5eko deskontua.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia
eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
 - %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiari jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua 20 €-tik gorako erosketetan.

OSASUN ETXEA

- Zetoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik).

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandio Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5eko deskontua erosketen guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!





LAU-HORTZA

MERTXE MUGIKA

Gerediagari gorazarre

Egun hauetan Gerediaga elkarteak da albiste. Batetik, sortu zela 60 urte bete direnez, ospakizunetan dabiltzalako; bestetik, zuzendaritzan erreleboa egon delako. Hogeita bi urtean buru izan den Nerea Mujikak lekukoa pasatu dio Gotzon Gomezi. Eskerrik asko, Nerea, urte hauetan guztietan egindako lanagatik, eta zorte on ibilbide berrian, Gotzon! Albistea zabaldu zenean, irakurri nuen ez zela lan erraza bi hamarkadako ibilbidea laburbiltzea. Ideia horri tiraka, hasi nintzen pentsatzen zenbat ekimen garatu dituen Gerediaga Elkarteak; eta, are garrantzitsuago, akaso, zenbat egitasmo dauden, egun, bizirik Durangaldean Gerediagari esker. Diktadura garaian, kultura elkarte eta herri mugimendu askoren aterpea izan zen. Urrutira joan barik, nekez uler daiteke Durangaldeko AEKren sorrera Gerediagaren itzalperik gabe. Zalantzarik ez daukat: Gerediaga Durangaldeko historian eragile esanguratsua izan da. Liburu eta Disko Azokaren antolaketan ikusten dugu nagusiki Gerediaga Elkarteak, baina hori baino gehiago da. Lan eskerga egin du Gerediagak hirurogei urtean, eta bide horretatik jarraitzea eskatzen diot; izan ere, mundu globalizatu honetan garrantzitsua da jakitea nondik gatozen, non gauden eta zerk batzen gaituen. Animo eta bejondeizuela!

OHARRA Bixente Aizpuruak kolaboratzaile izateari utzi dio, osasun arazoengaitik. Eskerrik asko, Bixente, egindako lanagaitik!

AKUILUA

"Ahal dudan bitartean jarraituko dut dantzan"

MIREN ZAMAKONA AZKUNA DANTZA IRAKASLEA

Kriskitin dantza taldearen sortzaileetarikoa bat izan zen, eta gaur egun dantza eskolak ematen ditu astelehen eta eguaztenetan. Ikasleek merezitako omenaldia egin diote

Aitziber Basauri DURANGO

Miren Zamakonak (Durango, 1948) bizi osoan izan du lotura dantzagaz. Tronperri dantza taldean eman zituen lehenengo pausoak, eta geroago Kriskitinen jarraitu du bidea. Sorreratik dabil taldean.

Merezitako omenaldia egin zizuten joan zen astean. Zelan hartu zenuen?

Pozarren eta hunkituta. Ni ez naiz negar egitekoa, baina oiolo-larrua jarri zitzaidan.

Dantza eskolak ematen dituzu.

Bai, helduentzako dantza eskolak ematen ditut. Hiru taldetan banatuta, 75 bat ikasle ditut. Plazako dantzak eta fandagoa eta arin-arina irakasten ditut. Orain 18 bat urte hasi nintzen irakasten. Kriskitinen belaunaldi berriak hartu du erreleboa gazteei erakuste: Jaione, Nagore, Irati, Itxaso, Maider, Izaskun, Oier eta Jon.

Oraindino erakartzen dute euskal dantzek?

Bai. Batzuek urteetan jarraitzen dute. Gainera, lantzean behin taldeko dantzaren bat irakasten diet; *Ingurutxoren bat* dantza esate baterako, eta jendaurrean dantzatzen direnak.

Zelako irakaslea zara?

Nahiko exijentea. Batzuetan



"OMENALDIA POZARREN ETA HUNKITUTA HARTU NUEN. OILO-LARRUA JARRI ZITZAIDAN"

iruditzen zait akatsak baino ez ditudala nabarmentzen (barrez). Baina noizean behin gogoratzen naiz ondo egin dutela esateaz. Oso talde politak sortu dira. Gustura etortzen dira, lagun berriak sortzen dira.

Noiz hasi zinen dantzan?

14 urtegaz. Tronperri 10 urtez dantza egin nuen. Irakatsi ere egiten nuen, taldea utzi nuen arte. Tronperri dantza taldeak 25. urteurrena ospatu zuenean berriro elkartu ginen denok, eta nagusien dantza taldea sortzea pentsatu genuen. Halantxik sortu zen Kriskitin, 1987an. 14 bat urtez dantza egin barik egon eta gero, garai bateko ilusioagaz hasi nintzen berriro. Taldean denok ginen 40 urte bueltakoak.

Harrezkero, Kriskitinen ibili zara?

Bai, orduango hiruk jarraitzen dugu. Juan Antonio Aroma txistularia da bat. Bere laguntza behar dugun guztietan etortzen da, jubilatuta dagoela dioen arren. Pili Alberdi Kriskitineko presidentea eta arropen arduraduna da bestea; eta ni neu hirugarrena, diruzaina.

Zelan gogoratzen duzu Kriskitin dantza taldearen sorrera?

Ilusino handiagaz hasi ginen. Dantza egiteko gogoia genuen, eta seme-alabak koskortzen hasita genituen. Batzuetan laguntzera etortzen ziren gugaz. Saio mordoa egiten genuen. Hainbat lekutan dantza egin dugu: Frantzian, Grezian, Galizian, Herrialde Katalanetan, AEBetan... Fandangoa eta arin-arina erakusten ere hasi ginen, garrantzitsua iruditzen zitzaigulako jendeak suetoan dantza egiten ikastea. Apurka-apurka taldea uzten joan dira asko. Orain gazteak eta umeak dabilta dantzan.

Noiz arte jarraituko duzu dantzan?

Ahal dudan bitartean jarraituko dut. Baina orain trankilago nago dantza eskolak uzteko, Pili Arrazolak laguntze dit eta.

Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak dituzten atikoak.



Azken fasea, lanetan.

**Azken atikoak
SAN ROKE BARRIAN, Durangon.**

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

Etxebizitza pertsonalizagarriak. Sortu etxe bat zure beharren arabera.

Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

Informazio gehiago:

sukia.com

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa